



# HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

6. Zenb. Urtarrila 2017

EUSKAL SELEKZIOAK HIRU  
GOL SARTU DIZKIO TUNISIARI  
(3-1) EGUBERRIETAKO  
PARTIDAN ETA KIROL  
POTENTZIALA ERAKUTSI DU



# DANOK BATERA!



LUIS MARI  
ELUSTONDO  
EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEKO  
PRESIDENTE AUKERATU  
DUTE BERRIRO



NESKEN SELEKZIOAK  
AURRE EGIN  
DIO EIRERI  
NAZIOARTEKO  
LAGUNARTEKO  
PARTIDAN



EUROPA ASIA AMÉRICA OCEANÍA CRUCEROS

# Las VUELTAS DAN MUCHA VIDA

Hasta  
**14%**  
DESCUENTO

Mejor  
**PRECIO**  
garantizado

Financiación\*  
**10** meses

Consulta condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras oficinas. \*Financiación 10 meses consulta condiciones de financiación ofrecida sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance S.A.

CLC/MA 2468/Mm  
200 oficinas  
**902 811 811**  
nautaliaviajes.com



**NAUTALIA**  
Viajes

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. [945 10 30 97] | BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 75 (Metro: San Mamés/Indautxu). [946 42 43 48] | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). [946 40 40 28] • Pza Santiago, 3. [946 41 40 10] | Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). [946 41 45 08] | Deusto | Luis Power, 28. [946 43 80 03] | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. [946 41 64 05] | LAS ARENAS-GETXO | Mayor, 4. [946 42 46 82] | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbietta, 47. [943 10 49 24] | Eibar | San Agustín, 5. [943 10 89 60] | Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). [943 10 43 42] | Rentería | Av. Navarra, 63. [943 10 43 44] | Urretxu | Labeaga, 41. [943 10 98 78]



3	EDITORIALA
4	HAUTESKUNDEAK
5	EURO 2020 BILBO
7	MEDEAURREAK
8-11	LEHEN MAILA
12-13	EUSKAL SELEKZIOA-TÚNEZ
14	BIGARREN B MAILA
15	HIRUGARREN MAILA
16	EIRE-EUSKAL SELEKZIOA
17-19	EMAKUMEZKOEN FUTBOLA
20-21	GAZTE ETA KADETEAKO
22	ARETO FUTBOLA

©:  
EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea  
Comité de Redacción  
Luis María Elustondo,  
Nerea Zalabarria, Kepa Allica,  
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
Cantera Deportiva S.L.  
Disenu eta Maketazioa  
Diseño y Maquetación  
Cantera Deportiva S.L.  
Argazkiak. Fotografías  
Federación Vasca de Fútbol  
y Cantera Deportiva

HAMAIIKA  
Euskadiko Futbol Federakundea  
Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 BILBAO  
Tfnoa: 94 473 19 00  
webmaster@eff-fvf.eus  
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador  
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen  
iritziak erantzule egiten  
Hamaika no se hace responsable  
de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIALA

### NUEVA SINGLADURA PERO LOS MISMOS RETOS AMBICIOSOS

Las recientes elecciones concluyeron con una sola candidatura por lo que fue proclamada de forma inmediata. A la nueva Junta Directiva se incorporan cuatro nuevos miembros, a ellos y al resto de directivos, nuestra más cariñosa bienvenida.

Conviene subrayar que la Federación Vasca de Fútbol representa al fútbol vasco en su amplio y total significado. Debemos aparcir cualquier interés territorial en este foro sin perder en modo alguno el trabajo en común y las metas más exigentes para el fútbol de Euskadi. Tenemos obligaciones de oficio, nuestras selecciones masculina y femenina, tanto en fútbol-11 como en fútbol sala, han de ser un ejemplo de deportividad, sacrificio y ambición.

Nuestras competiciones autonómicas son un gran escaparate de publicidad, imagen e identidad y nuestro esfuerzo ha de estar en el seguimiento, ayuda y promoción de nuestros deportistas. Hemos de crear grupos de trabajo para coordinar, centrar y unificar las prioridades de cada actividad e ir materializándolos en la realidad operativa.

La Federación Vasca de Fútbol ha de asumir el reto de su presencia en foros internacionales de sus selecciones comenzando por competir en fechas FIFA hasta llegar a la oficialidad. Es un trabajo difícil. Solo la unidad y la constancia permanente e incansable podrá hacer realidad nuestros sueños.

En este año 2017 celebramos las Bodas de Plata de la Federación y organizaremos diversos eventos, principalmente deportivos, que os iremos informando al tiempo que contamos con vuestra ayuda y colaboración.

En Hamaika os informamos de cuanto sucede o ha sucedido en los campos de Euskadi.

Agradecemos y felicitamos a clubes, jugadores, entrenadores, auxiliares, y árbitros por su trabajo y dedicación.

A todos muchas gracias.

### IBILBIDE BERRIA, BAINA ASMO HANDIKO ERRONKA BERBERAK

Egin berriak ditugun hauteskundeak hautagaizta bakarrarekin amaitu ziren; ondorioz, hautagai hura berehala izendatu zuten. Zuzendaritza-batzorde berrian lau kide berri sartuko dira. Haietako gainerako kideei gure ongietorri beroena egin nahi diegu.

Horrekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da Euskadiko Futbol Federakundea Euskadiko futbola haren esanahi zabalean eta osoan ordezkatzen duela. Hori dela eta, lurralde mailako edozein interes albo batera utzi beharko genuke Federakundearen baitan; izan ere, Euskadiko futbolerako asmo handieneko helburuek eta lan komunak izan beharko lukete lehentasunak. Ofiziozko betebeharrak ditugu; gure gizezkoen eta emakumezkoen selekzioek, futbol-11koek zein areto-futbolekoek, sakrifizioaren, anbizioaren eta kiroltasunaren erakusgarri izan behar dute.

Gure txapelketa autonomikoak publizitateko, irudiko eta nortasuneko erakusleho bikaina dira eta gure kirolarien jarraipena egitera, laguntzera eta bultzatzera bideratu beharko genuke gure ahalegina.

Jarduerak bakoitzaren lehentasunak koordinatzeko, zentratzeko eta bate-ratzeko lan-taldeak sortu eta horiek guztiak errealitate operatiboan hezur-mamitzen joan beharko genuke. Euskadiko Futbol Federakundea bere selekzioak nazioarteko txapelketetan izateko erronka bere gain hartu beharko luke FIFAk ezarritako datetan lehiatzen hasi eta ofizialtasuna lortzera arte. Lan zaila da. Gure ametsak egia bihurtzeko ezaugarri bakarrak batasuna eta irmotasun iraunkorra eta nekazina dira.

2017. urte honetan, Federakundearen zilarrezko ezteiak opatuko ditugu eta, horrekin lotuta, ekimen ugari antolatuko dugu. Batez ere kirol arlokoak izango dira, baina joango gara horietan buruzko informazioa ematen zuen laguntza eta elkar-lana jasotzen dugun heinean.

Hamaikan, Euskadiko zelaietan gertatu denaren edo gertatzen denaren inguru informazio guztia ematen dizuegu.

Era berean, taldeak, jokalariek, entrenatzaileak, laguntzaileak eta epaileak eskertu eta zoriondu nahi ditugu haien lan eta dedikazioagatik.

Guztiei, eskerrik asko.





Luis Mari Elustondo, aurrean, hiru presidenteordeekin: Juan Luis Larrea, Pedro Solaun eta Iñaki Gómez Mardones

## LUIS MARI ELUSTONDO EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO PRESIDENTE AUKERATU DUTE BERRIRO

*Luis Mari Elustondok jarraituko du Euskadiko Futbol Federakundeko presidente izaten, ez baita hauteskundeetan beste hautagairik izan.*

**Fran Rodríguez**

2020ra arte egongo da karguan Luis Mari Elustondo. “Erronka berria da hau eta euskal futbolaren eta haren hazkundearen alde lanean jarraitzeko ilusioz helduko diot”, azaldu zuen otsailaren 2an berriro presidente

aukeratu zutenean.

Bigarren agintaldi honi ekin dio Elustondok eta argi du “azkena izango dela”. Honela azaldu zuen: “Agintaldia amaitzean, erretiratu egingo naiz eta sar dadila ideia eta gogo berriak dituen beste pertsona bat. Euskadiko Futbol Federakundearen buruan zortzi urte egitea nahikoa eta gehiago da”. Presidentearekin batera, karguan jarraituko dute haren konfiantzako bi lagunek; haiek dira: Nerea Zalaberria presidenteordea eta Xabier Irusta diruzaina.

Zuzendaritza Batzordean daude, presidenteorde karguan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-presidenteak; hurrenez

hurren, Pedro Solaun, José Ignacio Gómez Mardones eta Juan Luis Larrea.

Zuzendaritza Batzordea kide hauek osatzen dute: Ramón Vicente Azkarate Lizarralde, Amable Fijo Barrio, Joseba Gamboa Delgado, Raúl González Amorín, Jose Angel Labrador Montero, Juan Luis Martín Gutiérrez, Maria Teresa Redondo González, Iñaki Xabier San José Loiti, Jesús María Villaluenga Isasviribil eta Jose Manuel Villar Careaga.

Pedro José Calparsoro Damián izango da aholkulari juridikoa, eta idazkari orokorra, berriz, Kepa Allica Bilbao. Epaile, entrenatzaile eta areto futboleko batzorde teknikoetako arduradunak presidenteak hautatuko ditu.

Agintaldirako ezarritako lehen helburuetako bat FIFA datetan jokatzeko lortzea eta Euskal Selektzioak garrantzi handiagoko aurkari baten aurka jokatzeko da. “Hori da gure helburu nagusia eta lanean jarraituko dugu, lortzeko. Ez da erraza, baina etorkizunean hori lortzen saiatuko gara”, adierazi du Elustondok.

# SAN ANTONGO ZUBIA EUROKOPA 2020RAKO BILBOREN LOGOA

*San Antongo zubia eta eliza Bilboren irudi izango dira UEFA EURO 2020an. Europako txapelketako 13 egoitzetako bat izango da Bilbo.*

**Iker García**

**S**an Mames izango da UEFA EURO 2020ko egoitzetako bat. Maila goreneko ekitaldia da eta Europa-ko 13 hiritan egingo dute txapelke-



Urrutia, Aburto, Ceferin eta Villar aurkezpenean

ta 60. urteurrena dela-eta. Hala, Bizkaiko hiriburua protagonista izango da Munich, Baku, Brusela, Kopenhage, Glasgow, Amsterdam, Budapest, Bukarest, Erroma,

Dublin, San Petersburgo eta Londres hiriekin batera.

Joan den abenduan, Juan Mari Aburto alkateak, Aleksander Ceferin UEFAko presidentek eta Ángel María Villar Espainiako Errege Futbol Federazioko presidentek hirian eragin ekonomiko handia sortuko duen ekitaldiari lotutako jarduera guztietan hementik aurrera Bilbo markari lagun egingo dion logoa aurkeztu zuten.

Kirol-hitzordu handiak erakartzeko nazioarteko erreferentzia gisa hiriak duen posizionamendua ere hobetuko da.

San Antongo zubia eta eliza dira, hiriaren sinbolo garbia. Bilboren ezkutuan eta Athleticenean ere hor daude.

Ordezkaritza politikoa (Udala, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta kirol arloko eragile ugari izan zen ekitaldian, tartean EFFko ordezkariak.



**Eventos  
con garantía de éxito**

**HGB**  
HOTEL GRAN BILBAO



El Hotel Gran Bilbao es el único hotel que dispone de palacio de congresos además de 1,800 metros cuadrados de salones para eventos.

Es un espacio idóneo para organizar eventos de empresa, convenciones, formaciones y presentaciones de producto.

El hotel ofrece apoyo integral a la gestión del evento y gran variedad de menús para banquetes y coffee breaks.

- El hotel está situado a escasos pasos del casco viejo,
- tiene muy fácil acceso para llegar en coche
- y ofrece parking gratuito para los asistentes.



# Compatibles contigo



Cápsulas compatibles con cafeteras Nespresso®\*



Cápsulas compatibles con cafeteras Nescafé® Dolce Gusto®\*

# BAQUÉ

• C a f é •

# AMAITU DIRA BIZKAIKO EPAILEEN BATZORDEAREN MENDEURRENEKO EKITALDIAK

*2016 ospakizun-urtea izan du Bizkaiko Epailen Batzordeak, 100 urte bete baititu. Hitzaldiak eta gala bat egin dituzte urteurrena ospatzeko.*

**Iker García**

**A** benduan, gala batekin amaitu ziren Bizkaiko Epailen Batzordearen urteurrena ospatzeko ekitaldiak. 700 epaletik gora ditu Batzordeak eta astero, futbol federatuko eta eskolako futboleko mila partidak banatzen dituzte haien artean.

Urteurreneko urtean ekitaldi asko egin dira. Lehen hitzaldia emakumeen futbolari buruzkoa izan zen eta Marisa Villa (nazioarteko epaile laguntzailea eta Epailen Batzorde Teknikoko emakumeen epaileen arduraduna), Rocío Puente (nazioarteko epaile laguntzailea) eta Blanca Ibañez (Bizkaiko Batzordeko lehen emakumezko epailea) izan ziren hizlariak.

Gogorarazi behar da Batzordeak emakumezko epaileen aldeko apustua egin duela eta lehen aldiz antolatu du emakumezko epaile batek eta emakumezko bi epaile laguntzaile izan dituen partida.

Ondoren, hondartzako futbolari eta areto-futbolari buruzko hitzaldi bat izan zen eta amaitzeko, nazioarteko hiru epaile hauek eskainitako hiru hitzaldi: Luis Medina Cantalejo, Antonio Miguel Mateu Lahoz eta Jesús Gil Manzano.

Ehun urteko historiaren ospakizunak amaitzeko, Espainiako Errege Futbol Federazioko Ángel María Villar buru izan zuen gala bat egin zen.

Bilboko Ercilla hotelean izan zen eta han izan ziren Esther Gascón Espainiako Errege Futbol Federazioko idazkari berria eta Victoriano Sánchez Arminio Epailen Batzorde Teknikoko presidentea ere.

Han izan ziren, 200 afaltiarren artean, Euskal Federazioko eta Bizkaiko Federazioko presidente Luis Mari Elustondo eta Iñaki Gómez Mardones, Bilboko alkate Juan Mari Aburto eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari Carlos Sergio Achotegui.

## NAZIOARTEAK

Mintzaldi ofizialetan gogorarazi zuten Bizkaiko Batzordeak nazioarteko 11 epaile sustatu zituela ehun urteko historian. Horietatik bi mundu mailakoak: Gardezabal Garay eta Ortiz de Mendibil Monaster.

## MENDEURRENAREN URTEARI EKIN DIO BARAKALDOK

**B**arakaldok 100 urteko historia oroituko duen urteari hasiera emateko gala egin zuen urtaririlaren 3an. 1917an sortutako fabrika-entitateak lagunarteko bat antolatu zuen herriko gainerako taldeekin batera eta orain, mendurrena bete duten klubuen talde berezian sartzerara doa.

## ELGOIBARREK ERE 100 URTE

**E**lgoibarrek, mendurreneko ekitaldiei ekiteko, mahai-inguru bat antolatu zuen eta han izan ziren Julen Lopetegi, Jose-txo Arakistain, Jagoba Arrasate, Itziar Gurrutxaga, Markel Bergara eta Jose María Arikastian. Zuhaitz Gurrutxaga izan zen moderatzaile.



Galan izandako agintariak



# ALAVES TALDEAK ILUSIOA PIZTU DU KATEGORIA GORENERA ITZULITA

*Babazorroak lehen bira bikaina egiten ari dira eta bideratu dute, jada, denboraldi honetako helburu nagusia: mailari eustea.*

**A. Marcos**



Aldi gozoan dago taldea/DEPORTIVOALAVES.COM

Alaves taldea indartsu itzuli da Lehen Mailara. Jokalarien taldea erabat berrituta eta Mauricio Pellegrino buru duen teknikari

taldea osatuta, babazorroek talde sendoa direla eta edozein aurkariaren aurka eta edozein zelaitan lehiazteko gai direla erakutsi dute. Horren erakusgarri dira Nou

## EGOITZA ETA ZELAI BERRIA EGITEKO PROIEKTUA

Alaves taldeak urrats garrantzitsuak egin ditu orain dituen azpiegiturak hobetzeko.

Eginiko lehen urratsa El Mineral eraikina eskuratzea izan da. 80 kirolarientzako egoitza bihurtuko dute.

Gainera, zelai berria egiteko proiektua ere aurkeztu berria du. 32.000 lagunentzako lekua izango luke.

Camp eta El Madrigal estadioetan lortu dituzten garaipen entzuteak, edo Vicente Calderón zelaiaren lehen jardunaldian lortutako berdinketa.



Excursiones y Viajes  
Grupos  
Empresas  
Autobuses  
Coches de Lujo





## ATHLETIC, DISTIRA GUTXIAGO, BAINA EMAITZETAN ERAGINKORTASUNIK GALDU GABE

*Con un juego menos brillante pero igual de eficaz que en las anteriores temporadas, los rojiblancos siguen vivos en Europa y dando la talla en la Liga.*

**A. Marcos**



Talde osoak azaldu dio babesu Yerayri

**O**raindik joko maila onena lortu ez badute ere, Ernesto Valverderen mutilek talde eraginkorra direla erakutsi dute berriro eta Europa

Ligako taldeen fasea gaindituta eta Ligaren Europako postuetan egin-go diote aurre 2017ari. Gainera, Kopan, aurre egin zioten Bartzelonari. Joko-zelaietatik kanpo,

**ELAPOEL NIKOSIA,  
HURRENGO AURKARIA  
EUROPA LIGAN**

**Z**uri-gorriek Europa Ligaren 1/16ak jokatuko dituzte otsailean Nikosiako Apoel taldearen aurka. Bilboko taldeak San Mamesen jokatuko du joaneko partida, hilaren 16an, eta hurrengo astean, Zipren, erabakiko da aurrera nor egingo duen. Kopako kanporaketa ostean, Valverderen mutilak arreta txapelketa.

nabarmendu behar da Yeray Álvarez ohiko entrenamenduetara itzuli dela barrabiletako minbiziaren harira egin zioten ebakuntzaren ondoren.

**AEXA**  
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado  
y repasado  
de ropa deportiva  
Desde 1970**



## EIBAR KIROL ELKARTEAK BERRETSI EGIN DU ASKO HAZI DELA MENDILIBARREN ESKUTIK

*Eibarko taldea izan da lehen bira honetako ezustekorik handienetako bat, sailkapenaren erdian-goian duen lekua sendotuta.*

**A. Marcos**

**E**ibar berresten ari da joan den denboraldian eskaini zituen sentsazio onak eta txapelketa honetako ustekabe handietako bat izan da.

Gipuzkoarrek oso ildo erregularra daramate eta, horri esker, ez dute oraingoz partida bat baino gehiago punturik eskuratu gabe amaitu. Etxean oso eraginkor ibili dira, bost garaipen lortu dituzte, porrot bakarra (Osasunaren aurka) eta bi berdinketa (Alaves eta Sevillaren aurka).

Gipuzkoarrek asmatu dute berriro fitxaketak egiteko garaian eta kide berrietako batzuk funtsezko lana egiten ari dira proiektu berri honetan. Pedro Leónek bost gol sartu ditu eta bera da kapitulu honetako lider.



### 9 JOKALARI ARI DIRA UTZITA JOKATZEN

**J**on Ander Felipe, Jon Ander Amelibia, Sergio Garcia, Thaylor Lubanzadio, Ander Gayoso, Roger Escoruela, Txemi Garcia, Iñigo Barrenetxea eta Iker Vicente.

Nabarmena izan da kide berri batzuek eginiko ekarpena ere; horien artean daude Florian Lejeune eta Alex Gálvez atzelariak eta Fran Rico erdilaria.

# Ibéricosdeluxe

Delicatessen

ESPECIALISTAS  
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS  
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en  
San Sebastián (Donostia)  
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja  
Telf.: 943 423 849

[www.ibericosdeluxe.com](http://www.ibericosdeluxe.com)



# REALAK EUROPAKO TXAPELKETETAN BERRIRO JOKATZEA DU AMETS

*Donostiarrek ilusioa piztu dute lehen itzulian; izan ere, emaitza onak lortzeaz gain, oso joko ikusgarria egin dute.*

**A. Marcos**



Ilusioa piztu dute/REALSOCIEDAD.COM

Ilusioa piztu duen lehen bira egin du Realak. Oso emaitza onak lortu ditu eta joko ikusgarria eskaini du; horri guztiari

esker, Europako lehietara itzultzea du orain amets, baita, ahal bada, Champions League txapelketara ere. Carlos Vela berreskuratzea eta Las

## BI BIGARREN TALDEAK MAILARI EUSTEKO BORROKAN

**D**enboraldi honetan, bi bigarren taldeen egoera da donostiarren gurutze-bidea. Mailari eusteko borroka egin beharko dute gogorra izango den bigarren itzulian. Bereziki kezagarria da Real Sociedad C taldearen egoera, kontuan izanda, gainera, 2. B mailako herrestatzeak izan ditzakeela.

Palmas taldetik etorritako William Jose taldean sartzeko erabakia izan dira txuri-urdinen gorakada bikain honen giltzarrietako batzuk.



# AYESTARAN



**JOYERÍA AYESTARAN  
CON EL DEPORTE  
EUSKALDUN**

**DONOSTIÁN**

31 DE AGOSTO, 16  
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16  
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17  
Tf.: 943 420 919







## 13 #EUSKAL SELEKZIOA-TUNISIA



Mikel González, Iñigo Martínez, Balenziaga, Xabi Prieto, Illarramendi, San José, Oyarzabal, Muniain y Aduriz. Olazabal, Zaldúa, Boveda, Etxeita, Yuri, Iturraspe, Dani García, Manu García, Toquero, Sabin Merino y Susaeta. Maouadi, Ben Youssef, Abderrazek, Lahmar, Sassi, Bguiz, Khenissi y Khalifa. También jugaron: Msakni, Kchouk,

Sassi; 2-1 min. 19 Aduriz y 3-1 min. 44 Oyarzabal (goitortuaren ondoren). Txartel horia erakutsi zion Tunisiako Kchouk jokalaritari (80'). Lehendakaria, Iñigo Urkullu, izan zen palkoan partida ikusten.



### Autocares

Bº Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C - 48340 AMOREBIETA

Teléfono.: (+34) 946308250 - Fax: (+34) 946308510

[gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com) - [www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)

- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de SERVICIO en AUTOBÚS
- Transporte: ESCOLAR, BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, , Etc.
- Vehículos de: 7, 18, 22, 27, 35, 38, 40, 55, 59, 71 Plazas
- Vehículos ADAPTADOS para P.M.R. (Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado TAXI: Bodas, Lujo y 24 horas



## 2. B MAILAKO EUSKAL TALDEAK PROTAGONISTA, ONERAKO ZEIN TXARRERAKO

*Gernikak eta Leioak playoff postuetan amaitu dute lehen itzulia eta Zornotzak, Sestaok eta Zamudiok, berriz, zuzenean jaisteko postuetan.*

David Novo

**B**i talde (Gernika eta Leioa) lau onenen artean daude eta beste hiru (Real Union, Athletic B eta Areeta), mailaz igotzeko postuetatik gertu, sailkapeneko lehen hamar postuetan. Euskadik bigarren B mailako II. taldean dituen ordezkarien erdiek nota onarekin gainditu dute denboraldiaren lehen erdia. Barakaldo eta Real Sociedad B taldea, berriz, erdialdeko postuetan daude lehen 19 jardunaldien ondoren eta, aldiz, oke-rago atera zaizkie gauzak Zorno-

tza, Sestao eta Zamudiori hirugarren mailara jaitsiko bailirateke denboraldia 2016. urtea bezala amaituko balitz. Ez da uzta txarra

izan, beraz, kontuan hartuta gure erkidegoko ordezkariak lehiakor-tasuna hobetu duten talde baten erdia osatzen dutela, Albacete ere hor izanik, eta kontuan izanda, halaber, Madrilgo arerioen artean bigarren talde bakarra dagoela.

Oso aipagarria da, zalantzarik gabe, Gernikak daraman garaipen-bolada (7 garaipen jarraian); izan ere, bi hilabeteko epean, sailkapeneko azkenurreko postuan egotetik, hirugarren egotera igaro da.



Leioa-Real Sociedad B partidaren irudi bat

## REAL UNION, FEDERAZIO KOPAKO ZORTZI ONENEN ARTEAN

*Real Unioneak Alaves B kanporatu zuen Federazio Kopako final-zortzirenetan eta Zamudiok, berriz, galdu egin zuen Sporting B taldearen aurka.*

David Novo

**R**eal Union Federazio Kopako final-laurdenetara iritsi da estatuko fasearen final-zortzirenetako kanporaketan Alaves B gainditu ondoren. Gipuzkoarrak 3-2 nagusitu ziren Stadium Gal zelaian jokaturako joaneko partidaren eta itzulerako partidaren irabazi egin zieten (0-2) hirugarren mailan

### KRITIKAK TALDEEN OSAERARI

**E**uskadirekin mugakide ediren lau autonomia-erkidegoetatik Errioxak bakarrik (ordezkari bat) du presentzia 10 euskaldun dituen talde batean.

aritzen den taldeari.

Zamudio, berriz, kanporatu egin zuen Sporting B taldeak: 0-2 irabazi zuten Gazituagan eta 3-0 Mareon.

# ALAVES ETA EIBARREN BIGARREN TALDEEK DUTEN AHALMEN OSOA ERAKUTSI DUTE LEHEN ITZULIAN

*Alaves B, Vitoria, Cultural Durango eta Portugalete dira, ekuatorera iritsi garen honetan, mailaz igotzeko postuetan dauden lau taldeak.*

**David Novo**

**A**laves B hirugarren mailako IV. taldeko neguko txapelduna izan zen lehen itzulian zuri-urdinen bigarren taldea kategorian nagusi izan ondoren.

Gasteiztarrek zakuan 43 puntu sartuta amaitu zuten 2016a, jarraian bost garaipen eskuratuta. Eibarren bigarren taldea izan da

bigarren, hiru puntu gutxiago lortuta. Vitorian, gainera, Markel Areitiok armaginen lehen taldean nola debutatu duen ikusi dute eta kide duen Quique Cebriá atezainak ere partida ofizialerako Jose Luis Mendilibarren deia jasotzearen esperientzia bizi izan du.

Durangoko Cultural taldea ere gaztea da eta beheragoko kategorietan trebatutako futbolariaren aldeko apustua egin dute.

Hirugarren postuan amaitu dute lehen itzulia. Portugalete izan da laugarren.

Bigarren B mailatik jaitsi berriak dira eta talde hau da partida gutxien galdu duena.

Beasain eta Bermeo ere hor daude, zain, urtea aurretik dituzten lau postu horietako batean amaitzeko gogoz.

LIGAKO TALDEEN  
ERDIAK BAINO  
GEHIAGO ESTU,  
HERRESTATZEEN  
BELDUR

**B**igarren B mailatik zenbat talde jaitziko diren eta, beraz, herrestatzeen bidetik kategoría nazionala zenbat taldek galduko duten ez jakiteak dakarren ziurgabetasuna dela eta, euskal taldeko kide gehienek hortzak estutu eta ahalik eta puntu gehien bildu beharko dituzte. Hala, Zallak, adibidez, txapelketaren lehen erdian ez du garaipenik lortu eta Pasaia-rekin batera, mailaz jaisteko postuetan dugu, urrun samar, eta Real Sociedad C ere hor dugu. Aurtengo ikasturtean, hamazazpigarren dagoenetik hasi eta ia zazpigarren dagoen taldera arte denak zuzeneko aurkariak dira mailaz ez jaisteko lehian. Taldexka horretatik aipagarria da Tolosak eta Amurriok eginiko lehen itzulia.



Alaves B, neguko txapeldun





Partidaren aurretik, argazkia atera zuen selekzioak

## EUSKAL SELEKZIOAK DUEN MAILA ONA ERAKUTSI DU EIREREN AURKA DUBLINEN JOKATUTAKO LAGUNARTEKO PARTIDA

*Emakumezkoen Euskal Selekzioak azaroan jokatu zuen Eireren aurkako lagunarteko partida (2-1).*

(2015) eta Katalunian (2015) jokatu zituzten. Juan Jose Arregui hautatzailearen deialdiko jokalariek Athletic Club, Real Sociedad eta Oiartzun taldeetakoak izan ziren: Yulema Corres, Iraia Iturregi, Garazi Murua, Ainhoa Tirapu,

Ainhoa Vicente eta Erika Vázquez (Athletic); Marta Unzué (Bartzelona); Estibaliz Aizpurua, Joana Arranz, Irantzu Ibarrola eta Anne Mugarza (Oiartzun); Leire Baños, Naiara Beristain, Maria Diaz, Manuela Lareo yeta Sandra Ramajo (Real Sociedad); eta Elixabete Sarasola (Ajax). Partida berdinduta hasi zuten, baina irlandarrek aurre hartu zuten partidaren lehen zatiaren erdialdean Roche sartutako golari esker. 32. minutuan sartu zuen berdinketako gola Yulemak. Baina, bigarren zatiaren hasieran, Kiernanek 2-1eko gola egin zuen eta Arregui hautatzailearen neskek ahalegin handia egin zuten arren, Dublineko markagailuan ez zen aldaketa gehiago izan.

**Txemi García**

## ASTOREK EKIPAZIO BERRIA AURKEZTU DU

**E**uskal Selekzioa nazioartera itzuli zen azaroaren 25ean jokaturako lagunarteko partidarekin. Taldeak Eire izan zuen aurrean Dublineko Tallaght Stadium zelaian. 2014ko maiatzean Irlandak egindako bisitarren itzulera modukoa izan zen partida. Orduan, euskaldunek 2-0 irabazi zieten irlandarrei Azepeitian Naiara Beristainek, Real Sociadako jokalariek, sartutako bi golei esker. Partida hori Euskal Selekzioak kanpoko talde gisa jokaturako laugarrena izan zen. Aurrekoak Argentinan (2007), Estonian

**U**rriaren aurkeztu zuten Anoetan Euskal Selekzioaren ekipazio berria. Enpresak elastikoen diseinua berri du, federazioaren mendeurrena omendu nahian. Ekitaldian izan ziren EFFko presidentea, Luis Mari Elustondo, kirol-arropen enpresako arduradunak eta jokalariek.





## 18 AZPIKO ETA 16 AZPIKO EUSKADIKO TALDEEK MAILA BIKAINA EMAN DUTE ESTATUKO EMAKUMEZKOEN TXAPELKETAN

GARAITU GABEKO  
BI TALDEAK

**B**i taldeek, horrenbestez,  
lehen fasea porrotik gabe  
bukatu zuten.

*Euskadik lehen fasea  
abenduarien 16an eta 17an  
jokatu zuen Zubietako  
instalazioetan, Lasarte-  
Orian, eta ikusle ugari  
bildu zen.*

**Txemi García**

**1**8 azpiko eta 16 azpiko Euskadiko taldeek ondo hasi zuten selekzio autonomikoen Estatu mailako txapelketaren lehen fasea. Gure bi ordezkariak Extremadurako eta Kanariar uharteetako taldeak izan zituzten aurkari Zubietako instalazioetan, Lasarte-Orian. Emaitzak bikainak izan ziren eta, horiei esker, hurrengo partidei baikortasunez egin ahal izango diete aurre. Izan ere, bi taldeek lortutako puntuak batu egiten dira otsailean jokatu duten bigarren faserako.

Nagusienek txapelketa indarrez hasi zuten. Jon Kepa Gonzalez da haien entrenatzailea. Lehen partiduan, Extremadurako taldea garaitu zuten (2-0) Oihane Hernandezek eta Nerea Eizaguirrek sartutako golei esker. Gainera, 18 azpiko taldeak txapelketan dena emateko asmoa duela erakutsi zuen. Kanariar uharteetako taldea garaitu zuten (3-0) Damaris Egurrola, Oihane González eta Oihane Valdezate jokalariek sartutako golekina. Bestalde, Mikel Bengoak zuzentzen duen 16 azpiko taldeak berdinketa lortu zuen lehen partiduan. Lehenengo gola Extremadurakoek sartu zuten, baina Paula Aranaren golari esker partida berdintzea lortu zuten. Kanariar uharteetako jokalarien aurkako erreakzioa oso positiboa izan zen eta erraz garaitu zituzten Paula Aranak eta Nerea Nevadok sartutako golei esker (2-0).



16 urtez azpiko Euskadi lehen fasean



18 urtez azpiko Euskadi lehen fasean

## BIGARRREN FASEA OTSAILEAN JOKATUKO DUTE LEZAMAN

**A**utonomien arteko Estatu txapelketako bigarren fasea Aotsailaren 3 eta 5 artean jokatu dute Athletic Club taldeak Lezaman dituen instalazioetan. Bi faseen artean puntu gehien batzen dituzten lau selekzioak izango dira kategorია bakoitzeko azken fasea jokatu dutenak. Euskadi B taldean sailkatuta geratu da Nafarroarekin, Galiziarekin eta Murziarekin batera.



# LEHEN MAILAKO GURE HIRU TALDEEK URTE OSOAN GOIAN MANTENTZEKO HELBURUA DUTE

*Athletic Club, Real Sociedad eta Oiartzun dira emakumezkoen futboleko Estatu mailako goiko kategorian dauden gure ordezkariak.*

**Txemi García**

2016/2017 denboraldia Lehen Mailako gure taldeen gorabeherekin hasi da. Athletic Club taldea da sailkapeneko goiko postuetan dagoena. Dena den, denboraldi honetan, zuri-gorriak joan den urtean lortu zuten titulua berreskuratzeko borrokan atzean geratu dira.

Bestalde, Real Sociedad taldea lanean ari da Erreginaren Kopa eskuratzeko bere helburura gertu-



Athleticek San Mamesen jokatu zuen

ratzeko asmoz.

Aldiz, Oiartzun taldearen helburua mailari eusteko arrakasta lortzeko bigarren itzuli ona egitea da.

## ZURI-GORRIAK CHAMPIONSETIK KANPORATU DITUZTE

Athletic Club taldea Lehen Mailako txapelkun gisa itzuli zen Champions Leaguera. Hori lortzeko bederatzi denboraldi lehian eman ostean, zuri-gorriek Europako talde onenetako bat izan zuten aurrean txapelketa nagusian: Fortuna Hjørring. Tamalez, ez zuten lortu final-hamaseirenetako kanporaketa gaintzea. Joaneko partida urriaren 5ean jokatu zuten San Mamesen eta zuri-gorriek 2-1 irabazi zuten Yulema Corresek eta Maite Orozek sartutako golei esker. Eraitza ona izan zen arren, Danimarkan jokaturako itzulerako partidaren emaitza txarra izan zen Joseba Agirreren nesken tzat. Danimarkako taldea aurretik jarri zen bigarren zatian, baina Erika Vazquezek 69. minutuan berdinketa lortu zuen. Etxeko taldeak 84. minutuan partida luzatzea lortu zuen eta, penalti-multzoa iristeko minutu bakarra falta zenean, 3-1eko gola sartu zuen.

 **Sport·designer**


 grupo-campus

OFERTA LANZAMIENTO  
**19,50 €**

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: [www.sport-designer.com](http://www.sport-designer.com)



# ARGI-ILUNAK BIGARREN MAILAKO BEDERATZI EUSKAL TALDEEN ARTEAN

*Athletic B, San Ignacio, Eibar, Añorga, Aurrera Vitoria, Gasteizko Neskak, Pauldarrak, Mariño eta Arratia dira gure taldeak.*

**Txemi García**

**D**enboraldiz denboraldi, areagotu egiten da Bigarren Mailako eskakizuna eta gure taldeek lehiatzeko lan egiten dute. Athleticen filiala titulua eskura-



Gasteizko-Pauldarrak taldearen irudia

## ZURI-GORRIAK BESTE TITULU BAT LORTZEKO BIDEAN

**A**thletic B taldea Bigarren Mailako 2. taldeko txapeldun izateko borrokan sartuta dago. Txus Gojenurik zuzentzen duen taldeak 2013/2014 denboralditik lortu ez duen garaikurra eskuratu nahi du.

tzeko borrokan sartuta dago; aldiz, San Ignacio, Eibar eta Añorga taldeak goiko postuetan egoteko lehian sartuta daude. Zailagoa izango da denboraldia gainerakoentzat; izan ere, Ligan jarraitzea zail dago. Oartzun Lehen Mailatik jaistearen ondorioz herrestatzea gertatzeko aukerak euskaldunak arriskuan jarri ditu. Izan ere, txapelketa oso berdinduta dago eta, sailkapenaren erditik beheko aldera, jaitsiera gertatzeko arriskua dago.

# TXAPELDUN BIHURTZEKO ETA EUSKAL LIGAN MAILARI EUSTEKO BORROKA ERAKARGARRIA ETA GOGORRA DAGO

*Oartzun B taldea da Gasteizko Neskak taldeak iaz lortutako txapela lortzeko aukera gehien duena. Bigarren taldeak ez zuen porrotik jasan 16. jardunaldira arte. Orduan, Zarautzek garaitu zuen.*

**Txemi García**

**E**uskal Ligak bosgarren txapelduna zein den jakin nahi du. Iazko garailea Gasteizko Neskak taldea izan zen. Lehen itzuliaren amaieran, Oartzun B taldeak bere indarra erakutsi zuen Zarautzen eta Bizkerreren aurretik



Barakaldo-Bizkerreren irudia

Ligako lehen postua eskuratuta. Bigarren taldearentzako albiste txarrak, ordea, Lehen Mailatik iritsi dira; izan ere, lehen taldeak maila galduz gero, igoyerarik gabe geratuko litzateke. Horregatik, gertu-gertu dituzte Astiko eta Bolueko taldeak. Lehen hiru sailkatuen ondoren, lehenengo eta behin, denboraldi lasaia izateko tarte irekitzen da. Goiko postuetan egoteko indartsuenak Leioako eta Elorrio direla dirudi. Baina, horietatik aurrera, bide onetik doazen arren, arrastoa galdu ezin duten taldeen multzo handia dago. Tolosa, Barakaldo, Beasain edo Añorga dira talde horiek. Horien ondoren, etorkizuna ilunagoa da, herrestatzeak jasateko arriskua nabarmena baita. Lehen itzuliak puntu gutxiren inguruan elkartutako talde ugari utzi zuen: Ariznabarra, Hernani, Betiko Neskak, Aurrera Vitoria B, Pauldarrak B eta Berriotxo. Sailkapenaren amaieran dago Ugao, baina ez du emakumezkoen futboleko brontzezko kategorian jarraitzeko amore emateko asmorik.



## EUSKADIKO TALDEEK EZ DUTE ZORTE HANDIRIK IZAN ESTATUKO TXAPELKETAKO LEHEN FASEAN

*Gazteen taldeak Aragoiko eta Asturiaseko taldeen aurkako bi partidak galdu zituen, baina kadeteek bi puntu eskuratu zituzten bi berdinketei esker.*

**Raúl A. Collantes**

**E**uskadiko gazteen eta kadeteen selekzioek ez zituzten emaitza onak lortu abenduaren 27tik 29ra bitartean Zaragozan jokaturako Estatuko Txapelketako lehen fasean. 18 urtez azpikoek Aragoiko eta Asturiaseko selekzioen aurkako bi partidak galdu zituzten. 16 urtez azpikoek bi puntu bakarrik lortu zituzten, bi partidetan berdinketa lortuta. Gazteek azken orduko bi baja garrantzitsurekin egin zioten aurre lehen faseari, eta Zaragozan izandako egonaldian, jokalaria batzuek gripea harrapatu zuten. Hala eta guztiz ere, Aragoiren aurka 0-0ko emaitzari 87. minutura arte eustea lortu zuten. Minutu hartan, 1-0ko gola jasan zuten. Asturiasen aurkako partidari, Jose Luis Txakartegik entrenatzen duen taldeak lehen minutuan gola sartu zuen Naveirari esker. Asturiarrek, ordea, markagailuari buelta ematea lortu zuten, eta partida 3-1 amaitu zen. Oskar Tabuenkaren kadeteek bi partidetan oso itxura ona eman zuten. Ondo jokatu zuten, eta aukerak sortu zituzten. Dena den, Aragoiren aurka 0-0 berdindu zuten (esan beharrekoa da bi kasutan, zutaina jo zutela). Bigarren partidari, Asturiasen aurka, gol bat penaltiz sartu zieten eta 1-1eko emaitza lortu zuten luzapeneko denboran.

### BIGARREN FASEA

**E**uskadikoek Errioxa eta Kantabria izango dituzte aurrean otsailaren 24tik 26ra bitartean jokatu duten bigarren fasean.



Euskadiko gazteen selekzioa



Euskadiko kadeteen selekzioa

## FEDERAKUNDEA ETORKIZUNA AINTZAT HARTUTA LANEAN ARI DA

**Z**aragozan lortutako emaitzak direla eta, 18 azpikoen taldea Estatuko Txapelketako bigarren faserako aukerarik gabe geratu da. Matematikoki, kadeteek badituzte oraindik aukerak, baina “miraria” biharko lukete Iñaki Senak, Euskadiko Futbol Federakundeko kirol-zuzendariak, onartu duen moduan. “Teorian, hurrengo kanpainen pentsatuta jokalaria gazteenak ikusita jokatu behar dugu bigarren fasea”, aipatu du Senak etorkizuna kontuan izanda.

# EUSKADIKO TALDEEK MAILA BIKAINA EMAN DUTE LIGA AUTONOMIKOEN LEHEN ERDIAN

*Liga autonomikoetan lehiatzen duten euskal taldeentzako ona izan da txapelketaren lehen erdia. Berdintasuna dago sailkapenetan denboraldi honetan.*

Danok Bat da horietako bat; izan ere, 2016. urtea sailkapeneko hirugarren postuan amaitu zuen eta denboraldia amaitu arte gogor lan egiteko asmoa du.

Getxo ere Ligako lehen erdiko protagonistetako bat izan da gaz-

teen kategoria nagusian. Igo berria da eta defentsan talde sendoenak bat da. Gainera, partida gutxien galdu duenetako bat da eta horrek goiko postuetan daudenekin borroka egitea erraztu dio.

Defentsari dagokionez nabarmendu beharreko beste talde bat da Eibar. Eibar taldeak sailkapenaren erdian amaitu zuten 2016. urtea, baina goiko postuetan dauden taldeak harrapatzeko itxaropenarekin.

Izan ere, berdintasuna izan da nagusi txapelketako lehen hilabete hauetan.

Beheko aldean, Aurrera Vitoria, Antiguoko eta Santutxu taldeak mailari eusteko borrokan sartuta daude.

## Raúl A. Collantes

**G**azteen Ohorezko Mailan, liderra, Osasuna, harrapatu nahian hainbat talde dago. Euskadiko hiriburuetako talde nagusiez gain (Athletic Club, Real Sociedad eta Alavés), aurten ere beste talde batzuk nabarmendu beharra dago.



Gazteen Ohorezko Mailako Athletic-Eibar partidako irudia

## ATHLETIC CLUBAREN FILIALA DAGO ESTATUKO LIGAKO GOIALDEAN

**A**thletic Club B taldeak emaitza onak izan zituen eta Ligaren lehen erdia Gazteen Liga Nazionaleko goiko postuetan amaitu zuen. Lezamako taldeak emaitza onak lortu dituzten beste talde batzuen aurretik amaitu zuen urtea. Hernani eta Real Sociedad B taldeak daude, besteak beste, zuri-gorriak harrapatu nahian. Atzetik, Indartsu taldeak gertu ditu goiko postuetakoak.

## TOLOSA IZAN DA GAZTEEN EUSKAL LIGAKO TALDE ERREGULARRENA

**T**olosa taldeak Gazteen Euskal Ligako lider gisa amaitu zuen 2016. urtea. Tolosarrak izan dira erregularrenak Deusto, Leioa eta Vasconia taldeen aurretik. Sailkapenean alde txikiak daude (batez ere, sailkapenaren erdialdean) eta Romo, Gernika eta Alavés B taldeak ere oso gertu dituzte tolosarrek. Horrek guztiak agerian uzten du maila horretako berdintasuna.

## REAL SOCIEDAD TALDEA, GOL ASKO SARTU DITUEN LIDERRA, KADETEEN EUSKAL LIGAN

**B**este urte batez, Euskadiko futbol-talde nagusiak dira nagusi Kadeteen Euskal Ligan. Oraingoan, Real Sociedad taldea da sailkapenaren goiko postuan dagoena eta sartutako gol kopuruak txundigarriak dira gainera. Era berean, bigarren postuan dagoen Athletic Club taldearen datuak ere beldurgarriak dira. Sailkapenean atzerago joanda, Danok Bat eta Antiguoko taldeek dirudite lehen bi horien erritmo gogorrari jarraitzen saiatuko diren bakkarrak.



# ARETO FUTBOLEKO GAZTEEN, KADETEEN ETA EMAKUMEEN EUSKAL SELEKZIOAK, KANPORATUTA

## EUSKADI, BI FASEREN EGOITZA

Gasteizen eta Portugaleten jokatu zituzten gazteen eta emakumezkoen kategorietako lehen faseko partidak hurrenez hurren.

*Gazteen, kadeteen eta emakumezkoen kategorietako areto-futboleko euskal selekzioek ezin izan zuten Estatuko txapelketako lehen fasea gainditu.*

**Carlos Zárate**

Ez zuten aukerarik izan. Beste urte batez, Areto Futboleko Euskadiko hiru selekzioetako bakar batek ere ez zuten Estatuko txapelketako azken faserako sailkatzea lortu. Aurrerapausoak ematen jarraitzen duten arren, oraingoz oso txikiak dira.

Aitor Arévalok entrenatzen duen kadeteen kategoriako Euskadiko taldeak Valdepeñasen (Ciudad Real) jokaturako lehen faseko hiru partidak galdu zituen: Extremadura (0-5), Gaztela-Mantxa (1-5) eta Kanariar uharteak (2-5) izan zituen aurkari eta, ondorioz, kanporatuta geratu zen.

Joseba Hulek zuzentzen duen 19 urtez azpiko Euskadiko selekzioa Gasteizen jokaturako 19 urtez azpiko Estatuko txapelketako aurreko fasean kanporatuta geratu zen Balear uhartearen (1-2), Nafarroaren (2-3) Galiziaren (2-9) aurkako hiru partidak galdu ostean.

Joseba Hulek, gazteen hautatzaileak, eta Aitor Arévalok, kadeteen hautatzaileak, zuzentzen duten taldeko jokalariek Portugaleten jokaturako bi partidak galdu zituzten. Partidak Gaztela-Mantxaren (1-2) eta Valentziako komunitatearen (1-4) aurka izan ziren. Ondorioz, haiek ere ez zuten lortu aurrera egitea.



Jubenila



Kadetea



Femeninoa



# El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas  
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48  
Donostia-San Sebastián  
[www.vallinagrupo.com](http://www.vallinagrupo.com)





# CON SURNE TIENES UN SUPERSEGURO DE VIDA

Surne, la compañía con la mejor atención y servicio, reconocidos por la mayoría de corredores del país\*, te ofrece el más completo seguro de vida con múltiples servicios y a un precio imbatible.



## PRECIO Y COBERTURAS

Todas las coberturas con un precio imbatible.



## PLATAFORMA MOOVE

App para medición de datos biométricos.



## TESTAMENTO ONLINE

Un servicio adicional que nos diferencia.

bizkaiko medikuen elkargoa  
colegio de médicos de bizkaia

SEGURMEC  
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.  
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.